

Helburu didaktikoak	
1. Hainbat irudi eta gorputz geometriko eta haien osagaiak identifikatu eta irudikatu, planoko eta espazioko adierazpenak baliatuz eta haiek eraldatu.	<p>1.1 Triangeluen puntu eta zuzen nabarmenak irudikatzea GeoGebra baliatuz.</p> <p>1.2 Zirkunferentzia eta zirkuluaren eta poligonoen elementuak identifikatzea.</p> <p>1.3 Poliedro eta biraketa-gorputzak identifikatzea, izendatzea eta deskribatzea, haien ezaugarriak aintzat hartuz.</p> <p>1.4 Gorputz geometrikoak irudikatzea, GeoGebra 3D baliatuz.</p> <p>1.5 Gorputz geometrikoak dagokien garapen lauarekin erlazionatzea.</p>
2. Lehenengo mailako ekuazioak baliatuz, geometria lauari eta eguneroko bizitzako bestelako egoerei lotutako problemak ebatzi, eragiketen propietateak eta ebazpen-teknika zehatzak baliatuz.	<p>2.1 Eragiketen propietateak baliatuz, ekuazioetako adierazpenak garatzea, sinplifikatzea eta ebaztea.</p> <p>2.2 Lehenengo mailako ekuazioekin erlazionatutako problemak ebaztea, metodo analitikoaren urratsak aplikatuz.</p>
3. Berreketan oinarritutako adierazpen aritmetikoak eraldatu, eragiketak eginez eta propietateak aplikatuz.	<p>3.1 Berreketez osatutako adierazpen aritmetikoak sinplifikatzea, eragiketak eginez eta propietateak aplikatuz.</p> <p>3.2 Idazkera zientifikoa baliatuz, zenbaki handiak eta txikiak adieraztea eta ohiko idazkeraren eta idazkera zientifikoaren arteko erald.</p>
4. Gorputz geometrikoen azalera eta bolumena zeharka neurtu eta prozesua azaldu, planifikazioa eginez eta azalpenean hizkuntza geometrikoa baliatuz.	<p>4.1 Azalera eta bolumena neurtzeko unitate egokiak erabiltzea eta, behar izanez gero, unitate-aldaketak egitea.</p> <p>4.2 Irudi lauen eta gorputz geometrikoen azalera eta bolumena kalkulatzea, dagozkien formulak baliatuz.</p> <p>4.3 Gorputz geometrikoen neurriarekin erlazionatutako problemak ebaztea.</p>